

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

Pailazoen izugarritzko arrakasta /08

ELKARRIZKETA

Andres Agiriano, herriko nagusia /09

LEINTZ GATZAGA

Gatzagako Pilota Txapelketa /10

Egunon, zer moduz
zaude?
Zure etxean
ala nirean?

Bonjour, comment
allez-vous ?
Chez vous ou
chez moi?

dualia

elkar ulertuko dugu

Guten Tag
Wie geht es dir?
Bei dir zu Hause oder
bei mir zu Hause?

Buongiorno
Come sta?
In casa mia,
o nella tua?

TEKNOLOGIA HIZKUNTZAREN ZERBITZURA

Bat bateko itzulpen zerbitzua eskaintzen du Dualia enpresak.
Toribio Echevarria lehiaketa ospetsura aurkeztu eta finalista izan da.

GUARDIAKO FARMAZIA

ZAPATUA, 6
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 7
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzalea 943 71 18 62
Hezibide elkarte 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Instituitua 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
KZGunea 943 79 94 44
Liburutegia 943 71 18 62
Loiamendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxo ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Taxi geltokia 943 77 12 64
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALTAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 53 47 20
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdik 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan. hiletak: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: LARRINO
Domekan 12:30ean.

MENDIOLA
Domekan 12:00etan otoitzaldia.

GELLAO
Domekan 11:30ean.

OHARRAK

SERGEI OSOKIN AKORDEOILARIAREN KONTZERTUA
Sergei Osokin errusiar akordeoilari gazteak kontzertua emango du gaur, 20:00etan, parrokiari.

BOKAZIOEN ALDEKO OTOITZALDIA
Gaur, egubakoitza, 21:00etan, apaiz berrien bokazioen aldeko otoitzaldia egingo dute Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiari.

KOFRADIAK BATZARRA
San Martin-San Jose kofradiak batzar orokorra egingo du astelehenean, abenduaren 8an, 11:00etan, Kurtzebarri eskolan. Ekintza txostena irakurriko dute, eta kontu balantzea aurkeztu. Era berean, zuzendaritza talderako kideak aukeratu dituzte.

ERAKUSLEIHO LEHIAKETA
Kultura Sailak antolatu du astelehenean, abenduak 8, hasi eta 31ra bitartean.

BIKARIO NAGUSIAK HITZALDIA
Pastoral Barrutiaren gainean egingo du berba Felix Azurmendi bikario nagusiak, abenduaren 10ean, 19:30ean, parrokiari.

SANTA LUZIA EGUNA BASOTXON
Santa Luzia eguna ospatuko dute Basotxo elkartearen abenduaren 12an. Txokolate beroa izango dute bazkideek.

LORAMENDIRENAGENDA

'KANTU KONTARI' TXOTXONGILO EMANALDIA
Azike txotxongilo taldeak *Kantu kontari* emanaldia egingo du Algara ludotekan. Abenduaren 15ean (astelehena) izango da, 17:30ean.

SEASKAKO EGUTEGIAK SALGAI
Nafarroako eta Iparraldeko ikastolei laguntzeko Seaskako egutegiak dituzte salgai Loramendi euskara elkartearen.

ORAIN DELA 9 URTE ARETXABALETAN

Jose Kruz Etxebarria alkate ohia hil zen

Orain dela bederatzita urte hil zen Aretxabaletako alkate izandako Jose Kruz Etxebarria, abenduaren 2an. 1976tik 1979ra bitartean izan zen alkate, eta 1977ko urtarrilean, gerra ostean lehen aldiz, Herriko Plazan Ikurrina jaso zuen. Bestalde, kooperatibismoaren alde lan handia egin zuen Jose Kruzek.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru


"Aztartu"

Aztertu, arakatu.
—Oilluak etxazpi guztia aztartu dabe.
—Sasiarte ta errekazulo guztiak aztartu giñuzen, baiña ez giñuan topau ardixa.



GORKA ORTEGA

ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Mikel Arroiabe
1ean. Berandu bada ere, zorionak, ARETXAGAZETAko kazetarien partetik.



ARETXABALETA
Elene Berezibar
2an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Mari Carmen Fuensanta
4an. Zorionak eta muxu handi bat, Gureako lagun partetik.



ARETXABALETA
Maitane Davila
7an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Osaba, izeba eta lehengusuak.



ARETXABALETA
Mireia Davila
8an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARETXAGAZETAren bidez!
Ekar ezazu bere argazkia*
eta emajozu ezusteko ederra! **Doan!**

BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS

argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak
24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

LIBURUTEGIKOTXOKOA

'Barrikadak'

Elkarlotutako bost istorio sartu ditu Zubizarretak nobela honetan, bost kontalari, eta bost ikuspuntu tren bakar batean elkartuta, Vigotik Hendaiara doan trenean. Lehengo senarra utzi duen emakumeak idazten duen gutuna, ondoren kartzela utzi berri duen lapurraren istorioa, Guardia Zibilarena, Ordiziako gazte batena eta leihotik begira dagoen amona batena dira kontatzen direnak.



BARRIKADAK
Patxi Zubizarreta
Alberdania, 2003
94 orrialde

Istorioak bata bestearekin doaz lotuta, jakin-mina piztuz amaierara iritsi arte, eta han denak nahasiko dira istorio bakar bat osatuz.

Haur literaturan ezagunagoa da Patxi Zubizarreta, baina oraingoan helduendako nobela ederra idatzi du.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

EGUZKIGRAF
inprimategia

...egutegiak,
gabonetako tarjetoak,

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Tfnoa.: 943 791844 / Faxa: 943 792941
info@eguzkigraf.com
20550 ARETXABALETA

Lasai

Mirian Manteca
masajista

Lezama Zentru Komertziala
Santa Kurtz 24, etxabea ARETXABALETA
Tel.: 943 77 04 34

- Masaje terapeutikoa
- Posturen azterketan eta egokiratzean diplomaduna
- Osteopatia: Kraneala, Estrukurala, Funtzionala
- Lotura muskularrak

ATREBENTZIAEZPADA/ Negue gustetan jatzu? Eta aurten, edurre egin daixen gure dozu?



AURORA SASTRE
Langillie



JESUS MARI MARTINEZ
Jubilaue



ADRIANA GONZALO
Jubilaue



JOSEBA IGARTUA
Langillie



XABIER ZABALA
Jubilaue



ANA AGIRRE
Langillie

Ez, ez jat bape be gustetan. Hotza gorroto dot. Edurre, barrez, gustetan jat, baiñe han, urrin egin daixela. Paisajie gustetan jaten arren, hankendako ez da bape ona izeten hotz hori.

Ondo egon ezker negue politte da, bestela ez. Hotza txarra dala uste dot. Mendixek edurtute ikustie gustetan jat, baiñe ez herrixte. Mendiko elurrek ure ekarten dau, eta bape ona da.

Negua baiño udie gehixau gustetan jat. Hala eta be, badakit sasoiaren sasoiakue egin biher izeten dauela; orduen beste erremedixorik ez da egoten. Edurre mendixen ikustie gustetan jat.

Asko, gainera. Hotza, eurixe eta edurre ikeragarri gustetan jat. Edurre egin daixen gure dot; hala eta be, badakit horrek karreteran dabitzenendako kaltie ekarten dauela.

Bai. Hotza eta edurre egitteko sasoiaren gauz, eta egin daixela. Askorik ez baiñe, edur apur bat egittie gureko neuke. Asko egin ezker, barrez, problemak emuten dittu.

Bai. Urtaro bakotzak dauko bere sasoi, eta niri laurak egin daixen gustetan jat. Edurre egitten dauenien bazterdanak politto jarten die. Kalien egun pare batien egin daixela eta gero mendixen.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ANDRAMARIKO ETXEBIZITZEN ITXURA Duela urte bi Andramariko etxebizitzak zaharberrituko zituztela jakin genuen. Egoera kaskarrean zeuden eta auzokideak pozik hartu zuten berria. Orain, berriz, haserre daude. Lanok ez dituzte behar moduan amaitu eta aurrealdean zintzilik utzi dituzte uren hodiak eta argindar kableak. Etxeok eskaintzen duten itxurak txistu handi bat merezi du. /A.L.

ETABARRUAN...

ENPRESA /04

Dualia enpresa berria

Teknologia berriak lagun bat bateko itzulpena eskaintzen duen enpresa sortu dute herrian.

EHNA /05

Herriko taldeen atxikimendua

Herriko 19 talderen atxikimendua jaso du Bai Euskal Herriari taldeak EHNA egiteko.

KIROLAK /06

Murrukixoko txartel berriak

Elkarteko bazkideen txartelak berritzeko kanpaina jarri du martxan Zuzendaritza batzordeak.

ASTEKODATUA

21

MILA EURO BATU DITUZTE 'BERRIA'-REN ALDE

Berria-ren aldeko akzio salmentekin 18 mila euro batu behar zituzten Aretxabaletan. Astean jakin dugu marka hori gainditu egin dutela aretxabaletarrek. Guztira 21 mila euro batu dituzte.


BESTE EKESANA

“ Norberaren izena Euskal onomastikara itzultzeko edo aldatzeko aukera dago gaur egun.

Aukera bi daude: itzulpena egitea, eta gramatikalki euskarara egokitzea. Jende askok nortasun agirian izen bat eduki arren, beste batekin egiten du bizimodua. Horiek ere, aldatzeko aukera dute. Izen konposatuetan askotan gertatzen da hori. Kasu horietan, dokumentazio eta testiguak aurkeztu beharko ditugu. Ume jaioberriari izena jartzerakoan izen hori egoki idazteko edo beste barik, izena bera aukeratzeko Euskaltzaindiak izendegien zerrenda bat dauka. Umeari zerrenda horretatik kanpo dagoen izen bat jarri gura badiogu Euskaltzaindiaren ebazpena beharko dugu.

LEIRE OKARANZA
Arrasate Irratia/03-12-02

HERRITARREN BERBAK/ Edorta Mendieta



Ibarretxe Plana

Ez dakit zuetariko askok Eusko Jaurlaritzak aurkeztu berri duen Euskadiko Estatutu Politiko berriaren testua irakurri duzuen. Seguru asko ez. Hori ematen du *El Diario Vasco* eta *El Correo* egunkariak joan den domekan aurkeztutako inkestaren emaitzak irakurri eta gero.

Emaitzon arabera biztanleriaren %43,8k ezer gutxi daki proposamenaren inguruan. Eta, seguru nago, zerbait dakitenen artean gehiengoak hedabideen bitartez jaso duela planaren gaineko informazioa. Beraz, proposamena irakurri dugunak oso kopuru txikia izan behar dugu.

Ez da hori lasai egoteko moduko datua, jakina delako hedabideak ez direla errealitatearen notarioak, errealitatearen kronistak baizik. Ondorioz, beren jardunean errealitatearen interpretazioak egiten dituzte, alde bateko edo bestekoaren interesen defentsan. Eta Espainiako gobernuak planaren aurka eraiki duen gezurra eta beronek izan duen

oihartzuna ikusita kezkatzekoa da horrenbeste jende oraindik proposamena irakurri ez izana.

Euskadiko Estatutu Politiko berriaren testua irakurri duen edonork badaki berau ez dela independentziarako plan bat. Egia esan, edozein abertzalerentzat motz geratzen da testua,

baina horregatik dio Lehendakariak elkarbizitzarako proposamen bat dela. Madriletik diotenaren kontra Estatutu berriaren proposamenak ez du nahi Estatua apurtzea. Estatutu berriak gaur egungo Estatu-Nazioa gainditu nahi du eta

Nazioen Estatu bat sortu, non Estatua osotzen duten nazio subiranoak eta Estatua modu leialago batean erlazioatuko diren.

Ez legoke gaizki, beraz, astelehen honetako Euskadiko Estatutu Politiko berriaren testua guztioi hurbiltzeko inizatiba hartuko balu, beronen edukia azalduz. Garrantzitsua delako denok proposamena ezagutzea, horrela bakarrik izango garelako gauza egia eta gezurra ezberdintzeko eta iritzia propio bat izateko.

“Inkesten emaitzen arabera, biztanleriaren %43,8k ezer gutxi daki Ibarretxeren proposamenaren inguruan”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Herriko kontuek

Martitzenen Arritxu Oliden alkatie ikusi nauen telebisiñuen. GOITBko *Herriz herri* saiuen egon zan Aretxabaletan gainien berba egitten. Tarte motza dauket ordubete inguruko saiue komentetako, baiñe hemen doiez nire impresiñuek: Alberto Gorritiberea aurkezliek Arritxuk baiño ixte berba gehixau egin euen. Alkatien erantzunek diplomatikuek izen zien baiñe ez dakit inor konbentzitu euien. Telefono dei asko egon zien, eta batzuk ez zien konforme geratu erantzunekin. Derrepentien erantzutie ez dot uste samurre izengo danik baiñe neu be ez ninduten konbentzitu. Ez hori bakarrik udalien daukugun arazue konpontzie ezinbestekue dala pensau jaten, herritar guztixon onerako.

ENPRESA/ 29 hizkuntzatan egingo ditu bat-bateko itzulpenak Dualiako produktuak

Bat-bateko itzulpen zerbitzua eskaintzen duen enpresa sortu dute

MIRARI ALTUBE

Enpresa berria dugu herrian: Dualia. Toribio Echevarria lehiaketa ospetsuan hartu du parte, eta saririk jaso ez duen arren finalisten artean geratu da. Bat-bateko itzulpen zerbitzua eskaintzen du. Kanpoan egoitzak dituzten enpresendako zerbitzu benetan garrantzitsua.

Orain dela hilabete jarri zuten enpresa berria Basabe industrialdean. Lau lagunek izan zuten itzulpen zerbitzua eskaintzeko burutzioa, eta azken urtean lan asko egin dute aurrera eroateko.

29 HIZKUNTZATARA ITZULPENAK

Produktu berria sortu du Dualia enpresak, bat-bateko itzulpen zerbitzua eskaintzen duen produktua. Zerbitzu bakarra ez, baina, hiru eskainiko dituzte: poltsiko-ko telefonoarendako, telefonoz berbetan dauden hiru lagunendako eta bideo-konferentziendako.

Zerbitzurik erabilgarriena eta interesgarriena poltsikoko telefono bidez eskaintzen dute; norberak ez dakien hizkuntzan berba egiteko itzultzailea jartzen dute. 29 hizkuntzatarako dauzkate itzultzaileak, eta Dualiako produktua eskuan izanda enpresara deitu eta eskaera egin besterik ez dago. Jesus Mari Perez Usabiaga Dualiako lankidearen iritziz, oso zerbitzu interesgarria izango da enpresendako: "Debagoieneko enpresa askok dituzte egoitzak atzerrian; hortaz, atzerriko hizkuntzan jardun behar duenari



Dualiako kideak pozik daude enpresek interes handia dutelako produktuan.

erraztasunak ematen dizkiogu. Izan ere, ez da gauza bera oinarriko berba batzuk jakitea edo enpresako kontu teknikoan gainean berba egitea".

TORIBIO ECHEVARRIA LEHIAKETA

Eibarko Udalak antolatzen duen Toribio Echevarria lehiaketa ospetsuan hartu dute parte Dualiako kideek oraintsu. *Enpresa asmoak* atalera bidali zuten proiektua eta finalisten artean geratu

ziren. Ez zuten saririk jaso, maila handiko proiektuak zeuden-eta, baina ezagutzera emateko ederto etorri zaie lehiaketa.

Oraindik ez dute produktua komertzializatu; edozelan ere, bai Unibertsitatearekin bai enpresekin hartu-emanak izan dituzte, Real Sociedad futbol taldearekin tartean. Eta interes handia azaldu dute guztiek. Lehenengo produktuak abenduan bertan jarriko dituzte salgai.

LABUR

Batzar orokorra egingo du kofradiak astelehenean

Astelehenean, hilak 8, egingo du San Martin-San Jose kofradiak urteko batzarra. Kurtzebarri eskolan izango da, 11:00etan. Ekintza txostena irakurriko dute, eta kontu balantzea aurkeztu. Era berean, zuzendaritza talderako kide berriak aukeratuko dituzte.

Untzillara bideko industri pabilioiaren zatia erosi du Udalak

Untzillara bidean industria pabilioia egiten dabilta, 1.000 metro koadro inguru ditu, eta horietatik 500 metro koadro aurreko legegintzaldian erosi zituen Udalak. Orain beste 250 erostea adostu zuten ez ohiko osoko bilkuran, eta horien truke 450 milioi euro ordainduko ditu.

Arritxu Oliden alkatea GOITBko 'Herriz herri' saioan

Martitzenean, abenduak 2, GOITBko *Herriz herri* saioan egon zen Arritxu Oliden alkatea Alberto Gorritiberea kazetariarekin. Hainbat gai izan zituzten hizpide; tartean, etxebizitzak eta legez kanpo dagoen Aretxa plataforma. Ikusi ez zuenak beste aukera bat izango du aste bukaeran, GOITBn.

Banatzailleak

Egubakoitz arratsaldeetan GOIENKARIA banatu eta poltsikorako diru apur bat irabazi gura baduzu...

Deitu 943 71 23 91 telefonora edo etorri Aretxagazetako bulegora: Durana 11, 2. solairua

Derrigorrezkoa da 14 urtetik gorakoa izatea.

Aretxagazeta

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

JAUSORO OSTATUA

Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

IBARRA estankoa




PRENTSA ETA

IKASMATERIALA

Egunero zabalik


Bizkaia 3. Tel.: 943 79 23 77
ARETXABALETA

BEIRALAN KRISTALDEGIA



- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehazterako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurrira eginiko edozelango lanak

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274



ANDRA
MARI

Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Atzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Iber

★ Loteria ★

✿ Paper denda ✿

* Liburuak *

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

EHNA/ Datorren abenduaren 14an EHNA tramitzeko ekitaldia egingo dute

Herriko 19 taldek eman diote atxikimendua EHNARI

MIRARI ALTUBE

Prentsurrekoa eman zuen Bai Euskal Herriari taldeak martitzenean. Taldekideekin batera EHNARI atxikimendua emandako taldeetako ordezkari batzuk egon ziren. Herriko 19 taldek eman diote momentuz atxikimendua, baina datozen egunetan gehiago jasoko dituzte.

Orain hilabete inguru sortu zuten Bai Euskal Herriari taldea herrian. Ordutik hona gogor ibili dira lanean, eta lortu dute gura zuten emaitza: herriko taldeen atxikimendua.

19 TALDEREN BABESA

Bai Euskal Herriari taldeak naziotasun aitormenaren gainean egin zuen berba martitzenean. Aipatu zuten orain urte batzuk 900 sinaduratik gora jaso zirela herrian EHNAREN tramitazioa eskatzeko. Eta gogorazi zuten aurreko agintaldian EHNA erabiltzea onartu zutela, gehiengoz, osoko bilkura baten. Hori horrela, Udalarari eskatu zioten naziotasun aitormena egiteko behar dituzten bulego eta baliabideak jar ditzala.

EHNA tramitatu eta erabili ahal izateko herriko talde eta elkarten atxikimendua lortzea zuten lehenengo helburua. 19 taldek eman diote babesa, eta oraindik ez dituzte guztiak jaso; hortaz, pozik azaldu ziren. Bigarren pausoa Euskal Herriko naziotasun aitormena tramitatzeko da,



EHNARI atxikimendua emandako taldeetako ordezkariak batu ziren martitzenean.

eta horixe egingo dute datorren abenduaren 14an. Azkenik, tramitatu EHNA hori erabiltzeko bideak zabaldu gura dituzte.

EHNA-REN TRAMITAZIOA

Abenduaren 14an, goiz partean, Euskal Herriko herri gehienetsuenetan tramitatu dute EHNA, baita Aretxabaletan ere. Hori horrela, euskal naziotasuna

aldarrikatu eta Ikurrinari omenaldia egingo diote txalapartari eta txistularien laguntzarekin. Tartean EHNA tramitatu dute. Horretarako hiru argazki, udaletxean ematen duten erroldaren agiria eta 15 euro aurkeztu beharko dituzte interesatuek. 14 urtetik behar-koe familia-liburuaren kopia ere aurkeztu beharko dute.

FOTONOTIZIA



Kurtzebarri eskolan balioak lantzen ibili dira

Balioen gaineko astea izan dute Kurtzebarri eskolan. Urtero antolatzen dute, eta aurten, *Gure herria Euskal Herria* hartu dute ardatz. Euskal ondarearen gaineko hausnarketa egin dute Haur eta Lehen Hezkuntzako umeekin: irrintzi lehia-keta, euskal kanta eta jolasak ikasi, euskararen jatorria ezagutu, euskal sukaldaritzaren berri izan... Eta, astea bukatzeko, udazkeneko jaia egin zuten atzo, eguena. Guraso, ikasle eta irakasleak batu ziren Iturrigorri frontoian. /M.A.

LABUR

Leintz Pastoral Barrutiak abendu eta Eguberri aldietarako egitaraua kaleratu du

Aretxabaletako eta Eskoriatzako parrokiek osatzen duten Leintz Pastoral Barrutiak abendu eta eguberri garaietarako elizkizunen egitaraua kaleratu du. Gabonetako ohiko ospakizunetaz gain hitzaldiak eta otoitzaldiak ere izango dituzte eliztarrek. Abenduaren 11n, eguena, esaterako, Pastoral Barrutiaren gainean egingo du berba Felix Azurmendi bikario nagusiak, 19:30ean, parrokan.

Mortin
erloju-denda

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28

Jauregi Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaial - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

IRIARTE

Umeen denda
Helduen lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

LEIBAR
arrandegia



Loramendi 1
Tel.: 943 79 18 33
Mitarte Kalea 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta



Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

OSKAR
garajea

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa A-2-4
ARETXABALETA
www.garajeoscar.com

MENDIA

Murrukixo Mendizale Elkarteak bazkide txartelak berrituko ditu

Elkarteko arduradunek gura dute bazkide guztien datuekin osatutako datu basea eguneratu

AMAGOIA LASAGABASTER

Urtero moduan, Murrukixo Mendizale Elkarteak bazkideei txartelak berritzea garaia iritsi zaie. Elkarteko arduradunek lan hori nola egin azaltzeko eskutitza bidali die bazkide guztiei. Horrez gain, jakinarazten diete hilaren 18an batzar orokorra egingo dutela.

Datorren urtean Murrukixo Mendizale Elkarteak bazkideek txartel berria izan dezaten lanean hasi da Zuzendaritza batzordea. Helburua da guztiek bazkide eta federazioko txartela eguneratuta edukitzea. Horretarako, eskutitz bana igorri diete elkarteko kideei.



MURRUKIXO MENDIZALE ELKARTEA

Murrukixo Mendizale Elkarteak bazkideek ekitaldi ugari egiten dituzte urtean zehar.

DATUAK ETA KUOTAK

Murrukixok bazkide bakoitzari gaur egun bere txartela osatzeko dituen datuak jakinarazi dizkio. Horrek balioko du elkarteko datu basea eguneratzeko. Horregatik, Zuzendaritza batzordetik eskatu dute datu horiek aldatzeko edo ondo daudela baieztatzeko lehenbailehen elkartean jakinaraztea. Bazkideak martitzenean, 19:00eta-

tik 20:00etara, joan daitezke Murrukixoko egoitzara. Bestalde, 943 79 93 74 telefono zenbakira deitu edo murrukixo@euskalerrria.org helbide elektronikora mezua idatzita ere egin daitezke aldaketok. Bazkideek abenduaren 5a baino lehenago aldaketarik aurkeztu ezean, elkarteak aurtengo txartel bera egingo die 2004rako.

BATZAR OROKORRA

Murrukixok igorritako eskutitzean, gainera, urteko batzar orokorrean parte hartzeko deialdia egin die bazkideei. Bileraren abenduaren 18an egingo dute, 19:00etan, elkarteko egoitzan. Zuzendaritza batzordeak 2004rako aurrekontua eta kuota berriak aurkeztuko dituzte, besteak beste.

FUTBOLA

UDAk lan bikaina egin zuen Bergararen aurkako derbian eta 15. dago sailkapenean

UDA nagusi izan zen hilaren 29an Bergararen aurka jokaturako derbian. Igor Gordobilen mutilek sekulako partidua egin zuten, eta emaitzak horixe erakutsi zuen: UDAk 4-1 irabazi zion Bergarari. UDAk ez du partidurik galdu azken bi jardunaldietan. Hala, gaur egun 15 puntu ditu eta 15. postuan dago sailkapenean. Oraingo domekan Tolosaren aurka neurtuko ditu indarrak.

PILOTA TXAPELKETA

Lagun arteko pilota txapelketako azken partiduak abenduaren 13ra atzeratu dituzte

Kirol Zerbitzuak antolatutako lagun arteko pilota txapelketako finala astebete atzeratu dute. Hala, oraingo zapatuan beharrean, abenduaren 13 jokatu dute. Lehenengo taldeko finala 12:00etan jokatu dute eta bigarrenakoa 12:30ean. Aurtun, herriko jokalaririk bakarrik iritsi da txapelketako azken txanpara. Unai Uriarte da, eta Juantxu arrasatearrarekin osatu du bikotea.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA/Almen- Añorga
Lehenengo mailako kadeteak.
Zapatua. 11:00. Ibarra.
UDA- Zestoa
Lehenengo mailako gazteak.
Zapatua. 16:00. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.- Murumendi
Bigarren mailako gazteak.
Egubakoitza. 19:00. Iturrigorri.
Arrasate -Aretxab.
Lehenengo mailako nagusiak.
Egubakoitza. 20:00. Arrasate.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 4 Bergara 1
Preferentea.
UDA 2 Anaitasuna 2
Gazteak. Ohorezko liga.
Allerru 2 UDA 2
Lehenengo mailako gazteak.
Mariño 0 UDA/Almen 1
Lehenengo mailako kadeteak.
Arrasate 3 UDA/Almen 3
Bigarren mailako kadeteak.
Almen/UDA 3 Bergara 2
Emakumezkoen liga.
UDA/Almen 3 Touring 0

Eibar 8 UDA/Almen 2
Emakumezkoen liga. Futbol 8.
UDA/Almen 5 Lengokoak 0
Infantilak. Ohorezko liga.

PILOTA

Aretxab. 22 Illunpe 17
Lehenengo mailako nagusiak.
Aretxab. 22 Eibar 7
Bigarren mailako nagusiak.
Aretxab. 11 Lagunak 22
Lehenengo mailako gazteak.

Aitzorrotz elektronikoa
Alboka gazte moda
Ana's jantzi denda
Angelines autozerbitzua
Aretxabaleta iturgintza
Asensio jantzi denda
Begiondo optika
Calderon Soledad autozerbitz.
Errasti kioskoa
Errekabarren fruta denda
Etxabe harategia
Gantxegi harategia
Gemes edertze aretoa
Gertu janari prestatuak
Haurrak umeen moda
Ibarra estankoa
Iber loteria
Imanol janari denda
Iriarte umeen denda
Irudi ileapaindegia



Zure herriko dendetan erosi eta sariak irabaz ditzakezu!

Lehiaketa 2003ko abenduaren 1etik 20ra izango da.

Jauregi okindegia
Jon harategia
Josu harategia
Kixkur ileapaindegia
L-10 ileapaindegia
La Brasileña akeita etxea
Lasai masajeak
Leibar arraindegia
Leintz mertzeria
Leniz liburudenda
Mari Karmen oinetakoak
Maritxu mertzeria
Martin erlojudenda
Miren Zuriñe bitxitegia
Nerian loradenda
Photosynthesis argazkilaritza
Txilarra dietetika
Zainduz osasuna/fitnessa
Zare artegintza
Zubia oinetakoak

ERRETRATUZAHARRA

Marianisten ikastetxe berriko ikasleak



Marianisten ikastetxe berrian ateratako erretratu da, 1972. urte inguruan. Aramaio, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatzako ikasleak ageri dira; hori bai, mutikoak bakarrik. Edozelan ere ordurako joaten ziren neskak ere Marianisten ikastetxera. Erretratuko ikasle horiek, gainera, lehenengo urteak Marianisten ikastetxe zaharrean egin zituzten, gaur egun Eskoriatzako industrialdea eraikitzen dabilzan lekuan. Handik, Arkarazo auzo azpian egin zuten ikastetxe berrira pasatu ziren.

Zenbat jolas eta zenbat okerkeria. Badakigu erretratuan agertzen den mutiko batek kontatuta, halako batean, susto galanta pasatu zutela ikastetxe zaharrean. Laborategian zegoen talde osoa Jose Maria irakasle marianistarekin. Alkoholarekin esperimentuak egiten zebiltzan, baina baten bati saiodia zorura jausi eta sua hartu zuen honek egurrezkoa zen-eta. Laster itzali zuten, baina susto galanta pasatuta bai ikasleek, bai Jose Maria irakasleak. Ikastetxe zaharraren

inguruan, bestalde, zuhaitz eta landare asko zeuden, hortaz, belarrak erretzen ei zituzten. Berrira joan zirenean bukatu zitzaizkien holakoak, akaso benetako zigarroekin hasiko ziren.

Goitik hasita eta ezkerretik eskumara, lehenengo ilaran: Daniel Delgado, Isidro Elorza, Parra, xx,

Arnaiz, Moreno, Lete, Lonbide, Garai eta Jesus Guruzeta.

Bigarren ilaran: Roberto Urteaga, Iñaki Zumalde, Ezeiza, Caballero, Alvaro Urreta, xx, Koldo Atxaga, Etxabe, Larrañaga eta Manolo Hidalgo.

Hirugarren ilaran: Anjel Bergaretxe, Karmelo Ibabe, Astondoa, Jabier

Arregi, Jose Antonio Etxebarriarteun, Peli Galfarsoro, Felis Beltran de Heredia, Aitor Gonzalez, Tena, Aitor Zubia eta Iñaki Etxebarria.

Laugarren ilaran: Arregi, Pagaldai, Nafarrate, Lopez, Juan Felix Iregi, Imanol Aizpurua, Enrique Meyer, Joseba Zubizarreta eta Urrutia.

INKERNU TABERNA Kulturgunea

Kafe-tertuliak
erakusketak
antzerkiak
monografikoak...

Danona eta danontzat
Inaugurazioa gaur bertan

Etor zaitez!

Hidalga 5 Eskoriatza



Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2003ko abenduaren 5a / 148. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABALETIA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Kultur ekitaldi ugari Gabon jaiak protagonista hartuta

AINTZANE GARDOKI

Hasi berri dugun abendua ekitaldiz gainezka dator Eskoriatzara. Ipuin kontaketa, hitzaldiak, ikus-entzunezko erakustaldia, antzerkia eta Gabon jaiekin lotutako beste-lako ekitaldi ugariarekin disfrutatzeko moduan egongo dira eskoriatzarrak abenduan.

Abenduaren lehenengo egunetatik hilabetea amaitu arte izango da zer entzun zer ikusi eta zertaz disfrutatu Eskoriatzan. Lehenengo astean dagoeneko ekitaldi ugari izan dira. Abenduaren 2an, Antton Irusta kontalariaren eskutik herriko umeei ipuinak entzun zituzten. Eguaztenean, berriz, Ikastolen Elkarteak antolatuta azkeneko urteotan kaleratutako CD-ROMen erakustaldi praktikoa egin zuten. Eguenean, Josune Bereziartu eskalatazaileraren *Munduko eskalatazailerik onena*; Bloketik *Bulneseko Naranjora* ikus-entzunezkoan herritar ugarik hartu zuten parte.

ERA ASKOTARIKO EKITALDIAK

"Hilabete honetarako ekitaldiak antolatzerakoan beste edozein hila-betetan jarraitzen ditugun irizpi-

de berberak jarraitzen ditugu. Hau da, herriko talde eragileak elkar-tu eta bakoitzak egin gura dituen mahai gainean jartzen ditu. Gu ekintzak koordinatu eta hutsun-erik balego hutsune horiei irtenbi-dea emateaz arduratzen gara. Adi-bidez, hilero dago ekitaldiren bat umeendako. Edo hilero dago antzerkia nagusiendako; izan ere,

"Abenduko egitaraua osatzeko hilero jarraitzen ditugun irizpide berberak jarraitzen ditugu"

"Jendea antzerkia izatera ohitu egin da eta eskatu egiten du, gainera. Hori ona da!"

herriarrak ohitu egin dira hilero antzerkira joaten. Kontzertu bat antolatzen badugu ere, antzerkiak ezin du hutsik egin. Jendeak eskatu egiten du, eta hori ona da!" esan digu kultura teknikari Arantxa Untzuetak. "Egia da Gabonetako ekitaldiek garrantzi handia hartzen dutela hilabete honetan, eta Gabon jaietako ekitaldiok abenduko egitarauan txertatzen ditugu".

Gabonen aurretik, hilaren 18an Hazkunde taldeak hitzaldia egingo du kultura etxean, 18:00etan. Gaia: *Acercándonos a la realidad del alcohol*. Egun horretan bertan herriko erretiratuek jaia egingo dute; txistorra jana egingo dute eta opariak emango dizkiete. Hurrengo egunean Txalo produkzioek *Pakita* antzezlan eskainiko dute HUHEZILko aretoan, 22:00etan.

OLENTZERO, KONTZERTUAK, LEHIAKETA...

Gabon jaietan ohiko Musika Eskolako Bandaren kontzertua ez da faltako. Umeek urteko marrazkirik politenak egingo dituzte eta herriko dendariak txukun jarriko dituzte erakusleioak. Olentzerok aurren ere ez du hutsik egingo eta menditik jaitsiko da eskoriatzar guztiekin egoteko.



Pailazoen izugarritzko arrakasta

Magiaz gainezka *Poxpolin Mari Sorgin* ikuskizuna eskaini zuten joan den zapatuan Takolo, Pirritx eta Porrotzek; zalan-tza barik, Euskal Herriko pailazorik arrakastatsuenek. Orain-goan ere itzelezko arrakasta izan zuten Eskoriatzan egindako azkeneko lanaren estreinaldian. Sarrera guztiak -1.456- segituan saldu ziren. Axtrokik herritar ugariren laguntza izan zuen ikuskizuna antolatzeko. Arratsalde polit baina politagoa pasatu zuten horri esker ume eta ez hain umeei *Mari Sorgin* eta bere lagunekin. Aurpegiak ikusi besterik ez zegoen.



Felix Marti filosofia irakaslea Arizmendin

Joan den astean Felix Marti Kataluniako Unescoko zuzendari ohia egon zen Arizmendi ikastolako batxilergoko ikasleekin. Ia bi orduz egon ziren berbetan Marti eta ikasleak. Martik, lehenengo ordu erdian, munduko gatazkei irtenbidea emateko gerrak ez direla egokiak azaldu zuen; egun badaudela bestelako estrategia garatuagoak. Ikasleek galdera mordo egin zioten. Ikasleen esanetan hitzaldi izugarri interesantea egin zuen Martik. Txalo zaparrada itzela eskaini zioten.

LABUR

Mendiko bideen inbentarioa Eskoriatzan

Eskoriatzako Udalak mendiko eta auzoetako bideen inbentarioa egin gura du. Bideon ezagurriak jasoko dituzte inbentariotan. Eskoriatzan eta elizateetan mendiko bide ugari daude. Bideon izenak eta ezagurriak jasotzeaz gain, bideok publikoak edo pribatuak diren jasoko dituzte. Gainera, Udalak datorren urterako atera gura duten ordenantza baten bitartez bideen mantentze-lanak eta erabilera zehaztu nahi ditu. Tomas Madinabeitia ari da inbentarioa egiten.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Arizmendi-Jose Arana.....	943 77 20 25
Arizmendi-Almen.....	943 77 20 25
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 54 34
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak.....	112

OHARRAK

EHNA TRAMITATZEKO DEIA
Datorren hilaren 14an, Bai Euskal Herriari! taldeak bultzatuta EHNA tramitatzeko kanpaina nazionala egingo da Euskal Herri osoan. Egun horretan Eskoriatzako pleno aretoa zabalik egongo da euskal nortasun aitormenaren agiria egiteko. Hiru argazki, udaletxean alde zurretik jasotako errolda agiria eta 15 euro eraman beharko ditu interesatuak. Jai giroa izango da herrian nagusi.

ANDRES AGIRIANO/ ESKORIATZAKO NAGUSIENA

“Ondo jan, ardo ona edan eta lasai bizi izan, hori da luzaroan bizi izateko sekretua”

MIRARI ALTUBE

Joan zen domekan, San Andres eguna, 97 urte bete zituen Andres Agirianok. Bolibar auzoko Karoi baserrian bizi den gizon hori Eskoriatzako nagusiena da. 94 urte dituen Maria emaztearekin eta seme batekin bizi da.

Ospatuko zenuen eguna domekan, ezta?

Bai, sukaldea bete lagun egon ginen. Goizean Gipuzkoako Kutxatik etorri zitzaizkidan opariek. GOITBkoak ere hemen izan ziren. Eguerdi partean etxe-koak batu ginen bazkaltzeko, eta 21 lagun egon ginela uste dut.

Gipuzkoako Kutxakoek oparia, zer dela eta?

17 urte nituela zabaldu nuen nik aurrezki-libreta Kutxan, egizu kontuak noiz. Egurrak saldu nizekion Gasteizko lagun bati eta 4.000 peze-ta jaso nituen. Horiek sartzeko zabaldu nuen libreta, eta antza denez inguruko zaharrena da.

Hainbeste urtean lanbide asko izan dituzu?

Askok edo... Egurrak saltzen nituen nik, trenean sartu eta Gasteizera bidali ohi nituen. Ikatza egiten ibilitakoa naiz, eta karea egiten ere ikasi nuen. Ardiekin, behiekin... beti baserri inguruan. Aretxabaletan Arruena lantegian hasi nintzen lanean, baina gutxi ordaintzen zidaten, eta ez nintzen luzaroan ibili.

70 urte Mariarekin ezkontuta, ez da hala?



M.A.

Bai, halaxe izango da. Bolibarko elizan ezkondu ginen otsailaren 23an; nik 27 urte nituen eta Mariak gutxitxoago. Gogoan dut elurra egin zuela eta Maria erdi gaixorik eroan nuela elizara. Hiru eguneko bidaiatxoa egin genuen Donostiara; azken eguna Bilbon pasatu eta etxera itzuli ginen. Ezkondu aurretik, gainera, altzariak erosi behar izan nituen. Gasteizera joan nintzen errotera eta idiekien ekarri nituen Karoi baserrira.

33an ezkondu eta 36an gerra etorri zen.

Bai, emaztea bi seme-alabekin utzi nuen baserrian edadeko osaba batekin eta nik Donostiara joan behar izan nuen militar batekin lan egitera. Teniente koronel bati laguntzen nion Donostiako militarren ospitalean. Mojek gobernatzen zuten ospitalea eta ondo moldatzen nintzen eurekin. Soldadutzan egon nintzen ere ez nuen inoiz armarik hartu, beti ospitaleetan jardun nuen lanean;

“Egurrak salduta jasotako 4.000 pezeta sartzeko aurrezki-libreta zabaldu nuen 17 urterekin”

ordaindu eta guzti egiten zidaten.

70 urtean zenbat aldiz haserretu zara Mariarekin?

Ni? Sekula ere ez. Maria bera haserretzen da nirekin; nik 21:00ak inguruan ohera joan behar dugula esaten diot eta hark ezetz. Ohera joaten naiz eta hura haserre geratzen da sukaldean.

Joaten zara Eskoriatzara?

Gutxi; lehen, tentsioa hartzen joaten nintzen baina orain, etxera etortzen zait erizaina. Hortaz, ez daukat joan beharrik eta euroa dagoenetik oso gutxi joan naiz.

Inora joan barik ere kontu asko dakizkizu...

Inguruko jende gehientsuenaz egutzen dut, eta egunero etortzen dira semeak etxera. Baserri albotik ere jende asko pasatzen da eta beti dute konturen bat kontatzeko.

Burua argi daukazu eta osasun oso ona. Zein da hain osasun ona izateko arrazoia?

Ondo jan, ardo ona edan, tamainan beti ere, eta lasai bizi izan. Lan apur bat ere egin behar da, noski. Ez dago besterik.



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540



**MIRENTXU
TABERNA**

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

**AZKOAGA
ESTANKOA**

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

Ze barri?

Izan zaitez zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen... gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru Ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

**Calderería
Cantera, S.L.**
ALUMINIOAK

Zurgintza alumioa erabilia

Aingerugarakoa ibilbidea z/g
T. 943 71 49 11 F. 943 71 44 21
ESKORIATZA



Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

GATZAGAKO PILOTA TXAPELKETA

Pilotari ugarik hartuko dute parte Gatzagako Pilota Txapelketan


AINTZANE GARDOKI

Asteburuan, abenduaren 6an eta 7an jokatu dute pilotarietako aurtengo Gatzagako Pilota Txapelketa. Hamar bikotek hartuko dute parte. Zapatuan kanporaketa partiduak egingo dituzte eta domekan, berriz, finalaurrekoa eta finala jokatu dituzte. Ondoren, afaria egingo dute elkarrekin.

Zapatuan, hilak 6, arratsaldean, 17:00ak inguruan hasiko dira aurtengo Pilota Txapelketako lehenengo partiduak. "Parte hartuko dugun bikote guztiok elkarren kontra jokatu dugu. Kanporaketa sistema erabiliko dugu", esan digu antolatzaile lanetan dabilen Jon Sasiainek. "12 tantora jokatu ditugu partiduak, seguruenik. Ea zapatu arratsaldean partidu guztiak jokatzeko gauza garen". Domekan, berriz, finalaurrekoa eta finala jokatu dituzte pilotaririk onenek. Domekan, aurre-finala hasi aurretik, herriko pilotari gaztetxoek partidua eskainiko dute. Lur Uribe-etxebarriak eta Aitor Antuñano Aretxabaletako biote baten aurka neurtuko dituzte indarrak.

BI EGUNEKO TXAPELKETA

Badira dozena erdi bat urte antolatzaileak Gatzagako Pilota Txapelketa egiten hasi zirela. "Hasieran, Gatzagakoak ginen pilota-



ARTXIBOA

Eskuak ondo berotu dituzte astean pilotarietako, eta zapatu-domekarako ondo prestatuta izango dituztela jakinarazi digute.

riok bakarrik hartzen genuen parte txapelketan. Gero, Eskoriatzako auzoetako beste lagun batzuk ere hasi ziren parte hartzen. Aurreko urteotan bi edo hiru hilabete irauten zuen txapelketak. Garai honetan hasi eta martxo inguru arte egiten genuen txapelketa", esan digu hasiera-hasierratik txapelketa antolatzen duen

Ignacio Belokik. "Luzeegi joaten zen txapelketa. Gainera, astebururo beti egoten zen kale egiten zuen bikoteran bat. Gero, partidu horiek errekuperatu egin behar izaten genituen, eta moteldu egiten zen giroa", jarraitu du Belokik. "Iaz egun bakarrean egin genuen txapelketa eta egun polita pasatu genuen. Aurten, esan

bezala, bi egunean egingo dugu. Girorik ez da falta izango, edo hori espero dugu, behintzat.

IZENA EMATEKO AUKERA ZABALIK

Iazko txapelketan zortzi bikotek hartu zuten parte, aurreko urteotan baino dezente gutxiagok. "Aurtengo bikote batzuek eman dute izena. Dena dela, oraindik ere

"Domekan finalaurrekoa eta finala jokatu dituzte pilotari onenek"

"Ea maila polita erakusteko gauza garen eta herrian giro ederra izatea lortzen dugun"

norbaitek txapelketan parte hartu gura badu oraindik badu aukera", dio Sasiainek.

Hasita daude bikote batzuk eskuak berotzen. "Ea maila polita erakusteko gai garen eta herrian giro ederra izatea lortzen dugun", esan digute antolatzaileek. Giroa berotzeko asmoz, gainera, urtero bezala antolatzaileek sua egingo dute herritarrek hotzik izan ez dezaten. Gaztaina erreak eta intxaurrek ere ez dira falta izango. Txapelketa bukatu eta gero, gainera, txapelketan parte hartu duten pilotarietako elkarrekin afari ederra egingo dute Gaztanuzketan.

MANDIO

Garai bateko Arantzazu

Martitzenean, abenduaren 9an
20:30ean

Aurkezlea:
Goiatz Arana

Goitb
Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**



Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida


hemen bada
giro!



Matikua jatetxea

Azatta auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

GOYARAR ERRETEGIA



Eguneko menua

Solohaundi 25 Aretxabaleta 943 79 68 57

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETA

Taberna Berri



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

**URBALTZ
TABERNA**



Mitarte 21, behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

**Dorleta
taberna**

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel.943 79 94 15

HIRUSTA JATETXEA
Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. : 943 79 06 57

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25 ESKORIATZA

**ZARAIA
taberna**

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95

**IBARRA
JATETXEA**

Menua
eta
karta


Araba ibilbidea 29
ARETXABALETA
943 79 18 03



Mirentxu



Hidalga 10
Eskoriatza. 943 71 41 67



Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

**IOSU
taberna
harategia**

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1
Tel.. 943 77 03 08



**Aretz
taberna**



ORDUTEGIA:
Asteleneetik ostiralera
9:00etatik zabalik
Astebukaeretan
11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Amets taberna



Taberna eta kafetegia
Iparragirre 4. 943 79 01 29

Edertasun Gida

'Oso garrantzitsua da nor bere buruarekin gustura sentitzea, eta uste baino errazagoa da'

Dagoeneko 17 urte daramatzate estetizista lanean Xeli eta Mari Karmen Etxeandia ahizpek. Aurtengo udaberri arte Durana kalean izan dute egoitza; orain, oster, Ilargi plazan dute estetika zentro dotore askoa.

GERO ETA ESKAERA HANDIAGOA

Ia kasualitatez egin zituzten estetika ikasketak, baina konturatu orduko buru-belarri zebiltzan lanean. Depilatze lanak egiten hasi ziren, Durana kaleko gela txiki baten; poliki-poliki eskaera handitzen joan zen; hortaz, gela handitu egin zuten eta zerbitzuak ere bai. "Orduan egiten genuenak eta gaurkoak ez dute zerikusirik" dio Mari Karmenek, "Jendeak ez zion halako garrantzirik ematen itxurari, udarako baino ez ziren depilatzen emakumeak". Eskaera horri behar bezalako erantzuna emateko egoitza berria dute Ilargi plazan: solariumarendako gela bi, depilatzeak eta tratamenduak egiteko lau gela eta makillajerako egonlekua daukate. Xeli eta Mari Karmenekin batera Nerea ahizpa eta Iratzeder Iturri daude bezeroen zerbitzura.

DEPILATZEAK ETA TRATAMENDUAK

Hiru eratako zerbitzuak eskaintzen dituzte Gemes estetika zentroan: batetik, depilatzeak egiten dituzte: argizari beroarekin, hotzarekin, depilatze elektrikoa eta orain, laser bidezko depilatzea. "Udazken honetan ekarri dugu laserra. Ondo probatu aurretik ez genuen ekarri gura, eta ematen duen erantzuna



Iratzeder, Nerea, Xeli eta Mari Karmen, Ilargi plazan jarri berri duten estetika zentro dotorean.

ikusita animatu gara. Gu geu hasi gara probatzen, eta oso pozik gaude", dio Mari Karmenek.

Tratamenduei dagokienez, bi eratakoak dituzte: aurpegikoa eta gorputzekoa. Aurpegiko garbitasunak egiten dituzte, baita tratamendu bereziak eta makillajeak ere. Gorputzari dagokionez, alga bidezko tratamendua da ekarri duten azkena. "Gorputzari gero eta garrantzi handiagoa ematen diogu eta hainbat tratamendu ditugu. Alga bidezkoarekin, esaterako, likido asko gal daiteke saio bakoarean. Hala ere, tratamendu bakarra egin beharrean nahastu egiten ditugu, emaitza hobea lortzen dugulako". Pisua galdu gura duten gazteekin batera, urtetan aurrera doazen emakumeek eta haurra izan ostean gorputza zaindu gura dutenek egiten dituzte tratamendu horiek.

Bukatzeko, ezkontzera doazen bikoteei eskaintzen dizkieten zerbitzuak dituzte: bai emaztegiarendako, bai senargiarendako, bai ezkontzera doazenen senide eta lagunendako.

Asko aldatu dira kontuak 17 urtean, eta gaur egun asko begiratzen diogu itxurari; hori uste du, behintzat, Mari Karmenek: "Oso garrantzitsua da nor bere buruarekin gustura sentitzea; eta, askotan, uste baino samurragoa da hori. Hortaz, animatu eta etorri galdetzerainolako konpromiso barik. Zure gorputzak eta aurpegiak behar dutenaren berri emango dizugu; hortik aurrera, zeuk aukeratu. Tratamenduak aurrera eraman ditzazun, gainera, erraztasun guztiak eskainiko dizkizugu".

Ile honetan:

Gemes
estetika

Laser bidezko depilazioa
Makillajea

Ilargi plaza 1, Aretxabaleta.
Tel. 943 79 99 18.

Irudi

Ile apaindegia

Errekabarren 20 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 80 90

L10
ILE APAINDEGIA
ESTETIKA
SOLARIUMA
LORAMENDI, 10
TEL: 943 77 01 26
20550 ARETXABALETA

Kixkur
ILEAPAINDEGIA

Solarium bertikala
Ile-luzatzeak
Estetika zerbitzuak

Loramendi 11. ARETXABALETA
Tel.: 943 79 90 79.



TXIMAK
ILEAPAINDEGI MIXTOA
ETA ESTETIKA
Hörnko Plaza 5, behean Tel. 943 79 83 64
ARETXABALETA

MAITE
ILEAPAINDEGIA
Sarasate 1 behean
Tel. 943 79 59 05
ARETXABALETA

Edertasun Gidan parte hartzeko, deitu 943 79 86 21 telefonora